

Ikastolako Ohiko Batzar Orokorra

2025eko Ohiko Batzar Orokorra, azaroaren 27an, OSTEGUNEZ, arratsaldeko 17:00etan (lehen deialdian), 17:30ean (bigarren deialdia) eta hala badagokio, 18:00etan (hirugarren deialdian) Agerialde eraikineko 3. solairuan (Alperroburu, 5) egingo dela jakinarazten dizuegu.

Batzarreko dokumentazioa bazkide diren familia eta ikastolako langileei emailaz helaraziko zaizue hurrengo egunetan. Hona hemen [deialdia](#).



Bazkidetza kuota

Azaroaren 16an, hileko erreziiboarekin batera, urteko bazkide kuotaren kobrantza egingo dela jakinarazten da, 12,02 € familiako.



Jardunaldi pedagogikoak

Udarregi Ikastolatik jakinarazi nahi dizuegu **azaroaren 26an** Kursaaen **Jardunaldi**

Pedagogikoak ospatuko direla.

Hezkuntza arloan interes handiko jardunaldiak izango dira, eta gure komunitateko familiei ere gonbidapena luzatu nahi diegu.

Badakigu zuen artean hezkuntza munduan diharduten profesionalak ere bazaretela, eta uste dugu jardunaldi hauek interesgarriak eta aberasgarriak izan daitezkeela.

Jardunaldietako informazio guztia [hemen](#) aurkituko duzue.



Jangelako aisialdirako material bilketa

Jangela zerbitzua erabiltzen duten ikasleentzat material bilketa egin nahi dugu. Bazkal osteko aisialdi tarte horretan erabiltzeko izango litzateke. Talde txikitan bildu eta jolasean lasai jarduteko materiala nahiko genuke :

- Mahai jolasak (4-6 pertsona aldi berean jolasteko balio dutenak), neutroak direnak (saihestu pertsonaia famatu edo telebistako modako marrazkien jolasak).



- Euskarazko ipuin edo liburuak.



- Lurrean jartzeko "piknik"egiteko mantak.



Beraz, guretzat erabilgarria izan daitekeen materiala baduzu eta berrerabilpen honetara bideratu nahi baduzu, tutoreari helarazi mesedez. Seguru etekina aterako diogula. Mila esker, zuen eskuzabaltasunagatik.

Haur eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna

Azaroaren 20a, Haurren eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna da. Egun hori aprobetxatuz, "Gure haurrak ere badira" ekimenetik ikastola guztiak elkartasun keinuak egitera gonbidatzen gaituzte.

Horregatik, egun horretan, arratsaldeko **16:30etan Agerialdeko patioan** elkartuko gara **argazki bateratua** ateratzeko.

Guztiok parte hartzera gonbidatuta zaudete!



Arberoa ikastolari laguntza

Pasa den urtean Arberoa ikastolak su hartu zuen, eta gastuei aurre egiteko kanpaina desberdinak jarri zituen martxan. Hona hemen Arberoa ikastolako [arropa salmenta](#)!



Xiberoako ikastolen aldeko saskiak

Azaroaren 23a bitarte Xiberoako ikastolen aldeko saskiak eskuratzeko aukera izango da. Informazioa [hemen](#) topatuko duzue.



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIAITU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Ipuin kontaketak

Azaroan [ipuin kontaketa sorta](#) bat eskainiko da Sutegi Liburutegian:

- **4-5 urteko haurrei zuzenduta:** azaroaren 19an, asteazkenarekin, **18:00etan**, Sutegi Liburutegian, ipuin kontaketa saioa IXABEL AGIRRESAROBEn eskutik, 4-5 urteko haurrentzat. Iraupena 50 minutu.
- **6 urtetik gorako haurrei zuzenduta:** azaroaren 26an, asteazkenarekin, **18:00etan**, Sutegi Liburutegian, ipuin kontaketa saioa PELLO AÑORGArekin eskutik. Iraupena: 60 minutu.




LEHEN HEZKUNTZA

Pantailen erabilera egokiaren deskargua

Azken bi ast hauetan, Udarregi Ikastolako LH5, LH6 eta DBH1ko ikasleek, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzeko saioak egingo dituzte Miren Rosekin. Ondoren, Mirenek geletan ikasleekin landutakoa azalduko die gurasoei bilera batean.

Gurasoekin bilera, **azaroaren 19an, asteazkena, 17:00etan**, Agerialdeko 3. solairuan.



LH 6ko ikasleen irteera

Datorren **astelehenean**, azaroak 17, egun osoko irteera egingo dugu Zumaiako natur baliabideen interpretazio zentrorra (Algorri).

Trena **9:04**ean hartuko dugunez, tren geltokian **8:50**ean elkartuko gara. 16:30etan ikastolan izango gara.

Eraman beharrekoak:

*Ura, hamaiketakoa eta bazkaria

*Mugi txartela



Zorriak

LH 5eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA




BIGARREN HEZKUNTZA

Pantailen erabilera egokiaren deskargua

Azken bi aste hauetan, Udarregi Ikastolako LH5, LH6 eta DBH1ko ikasleek, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzeko saioak egingo dituzte Miren Rosekin. Ondoren, Mirenek geletan ikasleekin landutakoa azalduko die gurasoei bilera batean.

Gurasoekin bilera, **azaroaren 19an, asteazkena, 17:00etan**, Agerialdeko 3. solairuan.



DBHko ikasleen irteerak

DBH 1eko irteera: Azaroaren 20an, ikasleekin **Eureka! Zientzia Museora** bisita egingo dugu Biologia/Geologia arloan lehen hiruhilekoan landutakoa sakontzeko asmoz. Garraio plubikoan joango garenez, **Mugi txartela** eramatea komeni da.



DBH 4ko irteera: Hurrengo astean, **azaroaren 21ean, Deustoko unibertsitatera** joango gara STEAMsare-k antolatutako orientazio topaketara. Eraman beharrekoa ikasleei helaraziko zaie.